

**OGP 2. KONPROMISOA: AURREKONTUEN GARDENTASUN ETA KONTU EMATEA  
HIZTEGIA**

\* alfabetikoki ordenatuak izango dira

\*kontzeptuak erlazionatuak egongo dira (azpimarratuak)

<p><b>AURREKONTU PUBLIKO:</b> erakunde publikoek beren baliabideak planifikatu eta kudeatzeko erabiltzen duten tresna da. Urte oso batean izango diren <u>diru-sarrerak</u> eta <u>gastuak</u> jasotzen dituzte eta sarrera eta gastu hauek nolakoak izango diren zehazten dute. Aurrekontuak urte hasieran onartzen dira eta bete beharrekoak dira.</p>	<p><b>PRESUPUESTO PÚBLICO:</b> es el instrumento que utilizan las instituciones públicas para planificar y gestionar sus recursos. Se recoge la previsión de los <u>ingresos</u> y los <u>gastos</u> a realizar durante un año completo y se dice de qué tipo son. Los presupuestos se aprueban a principios de año y son obligatorios.</p>
<p><b>KONTU OROKOR:</b> erakunde publiko batek, bere aurrekontuen arabera urte oso batean izandako <u>diru-sarreraren</u> eta <u>gastuen</u> bukaerako balantzea zehazki aurkezten duen dokumentuak dira, hau da, zertan gastatu den eta nondik etorri diren aurreikusitako diru-sarrerak.</p>	<p><b>CUENTA GENERAL:</b> son los documentos en los que una entidad pública presenta de forma detallada el balance final de <u>ingresos</u> y <u>gastos</u> de un año completo según sus presupuestos, es decir, en qué se ha gastado y de dónde han venido los ingresos que había previsto.</p>
<p><b>KONTABILITATE:</b> eragiketa ekonomiko guztiak kontrolatzeaz eta erregistratzeaz arduratzen da, erakunde publikoak duen guztia nondik etorri den, non gastatu den eta zenbat geratzen zaion jakiteko, hau da, erakundearen kontuak eramateko.</p>	<p><b>CONTABILIDAD:</b> se encarga de controlar y registrar todas las operaciones económicas para poder saber de dónde ha venido todo lo que la entidad pública tiene, dónde se ha gastado y cuánto le queda, es decir, llevar las cuentas de la entidad.</p>
<p><b>TXOSTEN EKONOMIKO:</b> <u>aurrekontuarekin</u> batera justifikazio gisa aurkezten den txostena da, hau da, azaltzen du zergatik planifikatu diren <u>diru-sarrera</u> eta <u>gastu</u> horiek eta ez beste batzuk.</p>	<p><b>INFORME ECONÓMICO:</b> es un informe que acompaña al <u>presupuesto</u> como justificación, es decir, explica por qué se ha planificado esos <u>ingresos</u> y <u>gastos</u> y no otros diferentes.</p>

<p><b>AURREKONTU-PARTIDA:</b> <u>aurrekontua</u> hainbat aurrekontu-partidek osatzen dute. Aurrekontu-partida bakoitzean mota bereko gastu edo <u>diru-sarrerak</u> jasotzen dira (adibidez: ekipo informatikoen erosketa edo mendekoentzako laguntza-programa).</p>	<p><b>PARTIDA PRESUPUESTARIA:</b> el <u>presupuesto</u> está compuesto de diferentes partidas presupuestarias. En cada partida presupuestaria se recogen los <u>gastos</u> o <u>ingresos</u> del mismo tipo (por ejemplo, compra de equipos informáticos o programa de ayudas a dependientes).</p>
<p><b>DIRU-SARRERA:</b> erakunde publikoak, bere ohiko moduak erabiliz, urtean zehar biltzen duen dirua da. Dirua biltzeko ohiko moduak dira: <u>zergak</u>, <u>tasak</u>, <u>transferentziak</u>, <u>ondarea</u>, <u>inbertsioak</u> eta <u>finantza-eragiketak</u>.</p>	<p><b>INGRESO:</b> es el dinero que recauda a lo largo del año la institución pública por sus formas habituales. Son formas habituales de recaudación: <u>impuestos</u>, <u>tasas</u>, <u>transferencias</u>, <u>patrimonio</u>, <u>inversiones</u> y <u>operaciones financieras</u>.</p>
<p><b>GASTU:</b> ondasun edo zerbitzu bat bereganatu edo erabili ahal izateko erakunde publikoak egin behar duen diru-ordainketa da.</p>	<p><b>GASTO:</b> es el pago que la institución pública debe realizar para adquirir o poder disponer de un bien o servicio.</p>
<p><b>SAILKAPEN EKONOMIKO:</b> <u>aurrekontuaren partida</u> guztiak beraien izaera edo mota ekonomikoaren arabera sailkatzeari deritzo. Hauek dira partida mota batzuk: <u>langile-gastuak</u>, <u>ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak</u>, <u>finantza-gastuak</u>, <u>inbertsio errealak</u>, etab.</p>	<p><b>CLASIFICACIÓN ECONÓMICA:</b> es la clasificación de todas las <u>partidas</u> del <u>presupuesto</u> según su naturaleza económica o el tipo de <u>gasto</u> que es: <u>gastos de personal</u>, <u>gastos corrientes en bienes y servicios</u>, <u>gastos financieros</u>, <u>inversiones reales</u>, etc.</p>
<p><b>PROGRAMAREN ARABERAKO SAILKAPEN:</b> <u>aurrekontuko partida</u> guztiak dagokien jardun-arloaren edo politikaren arabera sailkatzeari deritzo. Sailkapen adibide batzuk: oinarrizko zerbitzu publikoak, etxebizitza eta hirigintza, ingurumena, zeharkako zergak, etab.</p>	<p><b>CLASIFICACIÓN POR PROGRAMA:</b> es la clasificación de todas las <u>partidas</u> del <u>presupuesto</u> según su área de actuación o política relacionada: <u>servicios públicos básicos</u>, <u>vivienda y urbanismo</u>, <u>medio ambiente</u>, <u>impuestos indirectos</u>, etc.</p>
<p><b>SAILKAPEN ORGANIKO:</b> <u>aurrekontuko partida</u> guztiak dagokien administrazio-unitatearen arabera sailkatzeari deritzo. Sailkapen adibide batzuk: sailak, departamentuak, zuzendaritza nagusiak, etab.</p>	<p><b>CLASIFICACIÓN ORGÁNICA:</b> es la clasificación de todas las <u>partidas</u> del <u>presupuesto</u> según la unidad administrativa que los gestiona: <u>Consejerías</u>, <u>Departamentos</u>, <u>Direcciones Generales</u>, etc.</p>

<p><b>ZERGA:</b> herritarrek erakunde publikoei ordaindu behar dieten diru-kopuru bat da, eta ez zaie ematen edo bermatzen zuzeneko onura ordaintzeagatik. Pertsonak jartzen duten diru hori zerbitzu publikoak funtzionatzeko balio dute (adibidez: argiteria publikoa edo kirol-instalazio publikoak).</p>	<p><b>IMPUESTO:</b> es una cantidad de dinero que las personas deben pagar a las instituciones públicas sin que se le dé o asegure un beneficio directo por su pago. Este dinero que aportan las personas sirven para que funcionen los servicios públicos (por ejemplo: el alumbrado público o las instalaciones deportivas públicas).</p>
<p><b>TASA:</b> zerbitzu publiko bat erabiltzeagatik ordaintzen den dirua da (adibidez: zaborrak biltzeko tasa edo kultur etxe bateko ikastaro batean izena emateko tasa).</p>	<p><b>TASA:</b> es el dinero que se paga por utilizar un servicio público (por ejemplo: tasa para la recogida de basuras o la inscripción en un cursillo de un centro cultural).</p>
<p><b>ONDARE:</b> erakunde baten ondasun, eskubide, karga eta betebeharren multzoa da.</p>	<p><b>PATRIMONIO:</b> es el conjunto de bienes, derechos, cargas y obligaciones que tiene la institución pública.</p>
<p><b>TRANSFERENTZIA:</b> erakunde batetik bestera aldatzen den <u>ondarea</u> da, erakundeen lan-eremuetan erabil dadin (adibidez, foru aldundietatik urtero-urtero lurraldeko udaletara diru-transferentzia egiten da udalek beren konpetentzien barruan dauden zerbitzuak eman ditzaten).</p>	<p><b>TRANSFERENCIA:</b> es un <u>patrimonio</u> que se traslada de una institución a otra para que sea utilizada en sus ámbitos de trabajo (por ejemplo, desde las diputaciones forales cada año se transfiere dinero a los ayuntamientos del territorio para que éstos presten servicios dentro de sus competencias).</p>
<p><b>FINANTZA-ERAGIKETA:</b> bi subjektu ekonomikok edo gehiagok <u>kapitala</u> trukatzean datza.</p>	<p><b>OPERACION FINANCIERA:</b> es aquella en la que dos o más sujetos económicos intercambian <u>capital</u>.</p>
<p><b>KAPITALA:</b> erakunde publiko batek irabaziak sortzeko dituen baliabide fisiko eta finantzarioen guztizkoa da.</p>	<p><b>CAPITAL:</b> es el total de recursos físicos y financieros que tiene una entidad pública, para generar beneficios o ganancias.</p>
<p><b>AURREKONTUEN BETEARAZPEN:</b> urte hasieran espero ziren <u>diru-sarrerren</u> eta konprometitutako <u>gastuen</u> betetze maila da. Gauzatutako <u>aurrekontua</u> ere esaten zaio.</p>	<p><b>EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA:</b> se refiere al grado de cumplimiento de los <u>ingresos</u> esperados y de los <u>gastos</u> comprometidos a principios de año. También se denomina <u>presupuesto</u> ejecutado.</p>

<p><b>ZUZENEKO ZERGA / ZERGA ZUZEN:</b> pertsonen <u>diru-sarreretan</u> edo <u>ondarean</u> zuzenean eragiten duena. Zerga mota honetan argi eta garbi identifikatuta dago nork eta zenbat ordaindu behar duen. Pertsona guztiek ez dute gauza bera ordaintzen, pertsona bakoitzaren gaitasun ekonomikoa kontuan hartzen delako. Adibidez, <u>PFEZa</u>.</p>	<p><b>IMPUESTO DIRECTO:</b> es el que afecta de manera directa a los <u>ingresos</u> o el <u>patrimonio</u> de las personas. En este tipo de impuestos está claramente identificado quién y cuánto tiene que pagar. No todas las personas pagan lo mismo, porque se tiene en cuenta la capacidad económica de cada persona. Por ejemplo, el <u>IRPF</u>.</p>
<p><b>ZEHARKAKO ZERGA:</b> pertsona batek zerbait kontsumitzeagatik edo erabiltzeagatik ordaindu behar duen zerga. Pertsona guztiei berdin eragiten dien zerga da, hau da, guztiok kopuru bera ordaintzen dugu, gure errenta-maila edo erosteko ahalmena edozein izanda ere. Adibidez, erosten ditugun prokutuen <u>BEZa</u>.</p>	<p><b>IMPUESTO INDIRECTO:</b> es el que una persona debe pagar por el hecho de consumir o utilizar algo. Es un impuesto que nos afecta a todas las personas por igual, es decir, pagamos la misma cantidad independientemente de nuestro nivel de renta o poder adquisitivo. Por ejemplo, el <u>IVA</u> de los productos que compramos.</p>
<p><b>ZERGA BEREZI:</b> ondasun edo zerbitzu jakin batzuen kontsumoari aplikatzen zaion <u>zeharkako zerga</u> (alkohola edo gasoleoa, adibidez). Pertsona guztiok kopuru bera ordaintzen dugu, errenta-maila edo erosteko ahalmena edozein izanda ere.</p>	<p><b>IMPUESTO ESPECIAL:</b> <u>impuesto</u> de carácter indirecto que se aplica sobre el consumo de determinados bienes o servicios (como por ejemplo el alcohol o el gasóleo). Todas las personas pagamos la misma cantidad, independientemente del nivel de renta o poder adquisitivo.</p>
<p><b>BESTE ADMINISTRAZIOEN EKARPEN:</b> aurrekontuko atal honek beste administrazio publiko batzuetatik modu erregularrean egiten diren ondasun-<u>transferentziak</u> jasotzen ditu, erakunde batek bere eskumenak gauzatu ahal ditzan ematen direnak.</p>	<p><b>APORTACIONES DE OTRAS ADMINISTRACIONES:</b> apartado del presupuesto que recoge las <u>transferencias</u> de bienes que se realizan de forma regular desde otras administraciones públicas para que una institución ejerza sus competencias.</p>
<p><b>ZOR PUBLIKO:</b> erakunde publiko batek bere jarduera bete ahal izateko baliabideak behar dituzenean eta jasotzen dituen <u>diru-sarrerak</u> hauek ordaintzeko nahikoak ez direnean, dirua entitate finantzarioei eskatzen die, zor publikoa sortuz. Zor publikoa entitate publikoak hurrengo</p>	<p><b>DEUDA PÚBLICA:</b> cuando una administración pública necesita recursos para poder desarrollar su actividad y los <u>ingresos</u> que recibe no son suficientes para pagarlos, solicita dinero a las entidades financieras, generando deuda pública. Indica el dinero que deberá pagar en los</p>

<p>urteetan ordaindu beharko duen dirua adierazten du, kasu gehienetan interesak ere ordaindu beharko direlarik (prestamoa balitz).</p>	<p>próximos años, en la mayoría de los casos con intereses (como si fuera un préstamo).</p>
<p><b>BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA (BEZ):</b> kontsumoaren gaineko <u>zeharkako zerga</u> da. Erosten dugun artikulu bakoitzaren edo jasotzen dugun zerbitzu bakoitzaren ehuneko bat biltzen du.</p>	<p><b>IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO (IVA):</b> es un <u>impuesto indirecto</u> que grava el consumo. Recoge un porcentaje de cada artículo que compramos o cada servicio que recibimos.</p>
<p><b>PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA (PFEZ):</b> pertsona bakoitzak urtebetean jasotako irabazietan aplikatzen den <u>zuzeneko zerga</u> da. Urtean jasotako errenta kalkulatzeko orduan, laneko irabaziez gain (soldatak etab.), bestelako ondasun-iturriak kontuan hartzen dira: enpresetako akzioak eta partizipazioak, etxebizitzaren alokairuak, jarduera ekonomikoen etekinak, etab.</p>	<p><b>IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS (IRPF):</b> es un <u>impuesto directo</u> que se aplica sobre las ganancias de cada persona durante un año. A la hora de calcular la renta anual percibida, además de los rendimientos de trabajo (salario, etc.), se tienen en cuenta otras fuentes de bienes: acciones y participaciones en empresas, alquileres de viviendas, rendimientos de actividades económicas, etc.</p>
<p><b>KAPITAL-IRABAZIAREN GAINEKO ZERGA:</b> ondasun bat erosketakoa baino prezio handiagoan saltzeagatik mozkina lortzen denean ordaintzen den <u>zuzeneko zerga</u> da.</p>	<p><b>IMPUESTO SOBRE LA GANANCIA DE CAPITAL:</b> es un <u>impuesto directo</u> que se paga cuando se obtiene un beneficio por vender un bien por un precio superior al que se pagó por la compra.</p>
<p><b>ONDAREAREN GAINEKO ZERGA:</b> ondare pertsonalaren gainean banaka aplikatzen den <u>zuzeneko zerga</u> pertsonala da, eta ondasun guztien balioan oinarrituta kalkulatzen da.</p>	<p><b>IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO:</b> es un <u>impuesto directo</u> y personal que se aplica individualmente sobre el patrimonio personal, y se calcula según el valor de todos sus bienes.</p>
<p><b>DOHAINZA ETA OINORDETZEN GAINEKO ZERGA:</b> pertsonen arteko ondasunen transferentziaren gainean aplikatzen den <u>zuzeneko zerga</u> da, oinordetza, dohaintza edo bizirik dauden pertsonen arteko beste transferentzia batzuen ondorioz.</p>	<p><b>IMPUESTO SOBRE DONACIONES Y SUCESIONES:</b> es un <u>impuesto directo</u> que se aplica sobre la transferencia de bienes entre personas como resultado de sucesiones, o de donaciones u otras transferencias que se realicen entre personas vivas.</p>
<p><b>SOZIJATEEN ZERGA:</b> enpresek lortzen dituzten irabazietan aplikatzen den <u>zuzeneko zerga</u> da.</p>	<p><b>IMPUESTO DE SOCIEDADES:</b> <u>impuesto directo</u> que se aplica a los beneficios que obtienen las empresas.</p>

<p><b>ORDAINARAZPEN PARAFISKAL:</b> <u>aurrekontuetan</u> aurreikusita ez dagoen eta <u>zergak</u> edo <u>tasak</u> kobratzetik ez datorren <u>diru-sarrera</u> mota bat da.</p>	<p><b>EXACCIÓN PARAFISCAL:</b> es un tipo de <u>ingreso</u> de las instituciones públicas que no está previsto en los <u>presupuestos</u> y no proviene del cobro de <u>impuestos</u> o <u>tasas</u>.</p>
<p><b>LANGILERIA GASTU:</b> erakunde publiko bateko langileen soldatak, kotizazioak eta prestazioak ordaintzeko erabiltzen den dirua da. Horixe da <u>aurrekontuetan</u> “1. Kapitulua” deitzen dena.</p>	<p><b>GASTOS DE PERSONAL:</b> es el dinero que se utiliza para pagar los sueldos, las cotizaciones y las prestaciones de los trabajadores de una institución pública. Es lo que se llama “capítulo 1” en los <u>presupuestos</u>.</p>
<p><b>BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK:</b> norbaiten borondatez zenbait eginkizun berezitarako edo aholkularitzarako izendatu den enplegatu publikoa da. Ez da funtzionarioa, ez da iraunkorra eta izendatu zuen agintariak edozein unetan ken dezake lanpostutik.</p>	<p><b>PERSONAL EVENTUAL:</b> es el empleado público que ha sido nombrado por voluntad de alguien para una serie de funciones especiales o de asesoramiento. No es funcionario, no es permanente y puede ser quitado del puesto en cualquier momento por la autoridad que lo nombró.</p>
<p><b>FUNTZIONARIOAK:</b> administrazio publikoaren zerbitzura lan egiten du soldata baten truke, eta administrazio-zuzenbideak arautzen du erakundearekin duen lotura.</p>	<p><b>FUNCIONARIO:</b> es aquella persona que trabaja al servicio de la Administración Pública a cambio de un salario, y cuyo vínculo con la organización está regida por el Derecho administrativo.</p>
<p><b>GAUZAZKO ORDAINSARI:</b> diruarekin egin beharrean, ondasunak edo zerbitzuak doan erabiliz, kontsumituz edo eskuratuz egiten den ordainketa.</p>	<p><b>RETRIBUCIÓN EN ESPECIE:</b> pago que, en lugar de hacerse con dinero, se realiza a través del uso, consumo u obtención de bienes o servicios de forma gratuita.</p>
<p><b>ENPLEGU-EMAILEAREN KONTURAKO KUOTAK:</b> Administrazio Publikoak langile bakoitzeko bere jardueraren arabera Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kuota da.</p>	<p><b>CUOTA A CARGO DEL EMPLEADOR:</b> es la cuota que debe pagar la institución pública a la Seguridad Social por cada persona trabajadora.</p>

<p><b>PRESTAZIO:</b> Gizarte Segurantzak edo beste erakunde batzuek enplegatuei ematen dieten laguntza, dirutan edo gauzatan, haien beharrei erantzuteko. Prestazio horiek ordaintzeko behar den dirua enplegu-emailearen konturako kuotatik dator.</p>	<p><b>PRESTACIÓN:</b> ayuda que la Seguridad Social u otras entidades dan a las personas empleadas, en dinero o en especie, para atender sus necesidades. El dinero que hace falta para pagar estas prestaciones proviene de la cuota a cargo del empleador.</p>
<p><b>ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK:</b> erakunde publikoek beren jarduera egin ahal izateko beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuen gastuak dira.</p>	<p><b>GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS:</b> son los gastos en bienes y servicios necesarios para que las instituciones públicas puedan realizar su actividad.</p>
<p><b>FINANTZA GASTUAK:</b> erakunde publikoei dirua eman dieten bankuei eta finantza-erakundeei interesak ordaintzearen ondorioz ematen diren gastuak dira.</p>	<p><b>GASTOS FINANCIEROS:</b> son gastos debidos al pago de intereses a bancos y entidades financieras que han prestado dinero a las entidades públicas.</p>
<p><b>KONPONKETA, MANTENIMENDUA ETA ARTAPENA:</b> aurrekontuen atal honek erakunde publikoen egoitza eta instalazioak martxan mantentzeko erabiltzen diren <u>gastu arruntak</u> jasotzen ditu.</p>	<p><b>REPARACIÓN, MANTENIMIENTO Y CONSERVACIÓN:</b> este apartado de presupuestos recoge los <u>gastos corrientes</u> que se destinan a mantener en funcionamiento las sedes y las instalaciones de las entidades públicas.</p>
<p><b>MATERIALAK ETA HORNIGAIAK:</b> aurrekontuen atal honek zerbitzu publikoak emateko beharrezkoak diren materialak eta hornigaiak erosteagatik egiten diren <u>gastu arruntak</u> jasotzen ditu. Adibidez, bulegoetako materiala edo elektrizitatea.</p>	<p><b>MATERIALES Y SUMINISTROS:</b> este apartado de los presupuestos recoge los <u>gastos corrientes</u> relativos a la adquisición de materiales y suministros necesarios para la prestación de los servicios públicos. Por ejemplo, el material de oficina o el suministro de electricidad.</p>
<p><b>ZERBITZU-ARRAZOIENGATIK EMATEN DEN KALTE-ORDAINA:</b> erakunde publikoak ordaindu beharreko balizko kalte-ordainetarako aurreikusitako <u>gastuak</u> dira.</p>	<p><b>INDEMNIZACIÓN POR DAÑOS Y PERJUICIOS:</b> son los <u>gastos</u> previstos para posibles indemnizaciones que tenga que pagar la institución pública.</p>
<p><b>INBERTSIO:</b> etorkizuneko irabaziak edo errentak lortzeko helburuarekin baliabideak (ondasunak, kapitala, etab.) jartzeari deritzaio.</p>	<p><b>INVERSIÓN:</b> es la acción de colocar recursos (bienes, capital, etc.) para obtener ganancias o rentas futuras.</p>

<p><b>INBERTSIO ERREAL:</b> ondasun fisikoak eskuratzeko edo hobetzeko egiten den inbertsioa da, etorkizunean irabaziak lortzeko.</p>	<p><b>INVERSIÓN REAL:</b> es aquella inversión que se destina a la adquisición o mejora de bienes físicos para generar beneficios futuros.</p>
<p><b>AKTIBO FINANTZARIO:</b> dokumentu edo idatzohar bat da, balio fisikorik gabea, eta erosleak etorkizunean diru-sarrera bat izatea espero du.</p>	<p><b>ACTIVO FINANCIERO:</b> es un documento o anotación, sin valor físico, cuyo comprador espera que le produzca un ingreso futuro.</p>
<p><b>PASIBO FINANTZARIO:</b> edozein erakunderekin hartutako zorrak dira, dela banku batekin, kreditu-erakunde batekin edo enpresa batekin, eta epe labur, ertain edo luzean ordaindu beharko dira (adibidez, hipoteka bat).</p>	<p><b>PASIVO FINANCIERO:</b> son las deudas adquiridas con cualquier tipo de entidad, ya sea un banco, una entidad de crédito o una empresa y que habrá que pagar a corto, medio o largo plazo (por ejemplo, una hipoteca).</p>
<p><b>BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI EGINDAKO EKARPENAK:</b> <u>aurrekontuko</u> atal honek, beste administrazio publiko batzuetara modu erregularrean egiten diren ondasun-<u>transferentziak</u> jasotzen ditu, administrazio horiek beren eskumenak balia ditzaten.</p>	<p><b>APORTACIONES A OTRAS ADMINISTRACIONES:</b> apartado del <u>presupuesto</u> que recoge las <u>transferencias</u> de bienes que se realizan de forma regular hacia otras administraciones públicas para esas puedan ejercer sus competencias.</p>